

# Gabriel Arestiren lehen argitalpenez berri ezezagunak<sup>1</sup>

Noticias inéditas sobre los primeros trabajos de Gabriel Aresti

Nouvelles inédites sur les premiers travaux de Gabriel Aresti

Unpublished news on Gabriel Aresti's early writings

KORTAZAR, Jon

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

jon.kortazar@ehu.eus

Noiz jaso: 2017-03-27

Noiz onartu: 2017-07-17

---

<sup>1</sup> Lan hau Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Ikerketa Taldeen Sarean kokaturik dagoen LAIDA (IT 1012-16) Ikerketa Taldearen eginkizunen barnean dago.

Gabriel Arestik Andima Ibinagabeitiari bidalitako gutun bi argitaratuko ditugu artikulu honetan. Gutun biak eta *Euzko-Gogoa* aldizkariko arduradunak bilbotarrari zuzendutakoak garbi uzten dute zeintzuk ziren poetak, bere 21 urterekin, zituen asmo poetiko eta literarioak. Gutunen bidez, gerora Gabriel Arestik egin zituen zenbait poemaren testuingurua azaltzeko bidea lortu dugu.

**Hitz-gakoak:** Gabriel Aresti, poesia, gutunak, lehen idazkiak.

En este artículo publicamos dos cartas que Gabriel Aresti escribió a Andima Ibinagabeitia. Estas dos misivas así como las que envió el responsable de *Euzko-Gogoa* al poeta bilbaino, dejan patentes cuales eran las inquietudes literarias y poéticas de Aresti a sus 21 años. Estas cartas nos muestran las pistas del que luego sería su recorrido poético

**Palabras clave:** Gabriel Aresti, poesía, cartas, primeros escritos.

Dans cet article nous publions deux lettres que Gabriel Aresti écrivit à Andima Ibinagabeitia. Ces deux lettres, tout comme celles qu'envoya le responsable d'*Euzko-Gogoa* au poète de Bilbao, montrent les inquiétudes littéraires et poétiques d'Aresti lorsqu'il avait 21 ans. Ces lettres nous montrent les prémices de son futur parcours poétique.

**Mots-clés :** Gabriel Aresti, poesía, cartas, primeros escritos.

This paper published two letters written by Gabriel Aresti to Andima Ibinagabeitia. These two missives, like those sent by the editor of *Euzko-Gogoa* to the poet from Bilbao, indicate Aresti's literary and poetic concerns at the age of 21. These letters reveal the direction he was to follow in his poetic career.

**Keywords:** Gabriel Aresti, poetry, letters, early writings.

Eskerrak lehenik eta behin Pruden Gartzinari, Euskaltzaindiko Liburutegiko arduradunari, gutun batzuk eskatu eta ezagutzen ez nituen beste hauek bidali zizkidalako. Errakuntza zoragarri bati esker artikulu hau idazteko beta dugu, eta Gabriel Arestiren idazkeraren historiaurreaz datu gehiago ezagutzeko bidea.

Ondoren Sebas Gartzinari Euskaltzaindiaren alde egiten duen lan esker-gatik.

Etxekoei, nola ez?, egunero-egunero ematen didaten indarragatik.

LAIDA ikerketa taldeko adiskideei aurrera egiteko eskainitako adorea-gatik.

Gabriel Arestiren senideei poetaren lana ikertzeko emandako erraztasu-nagatik.

Eta azkenez, baina ez garrantzirik ez dutelako, Kirmen Uriberi eta Alex Zuagazari alboan direlako maiz, eta maiz jakin gabe zein onura handia daskarkidaten.

## Sarrera

Gabriel Arestiren (1933-1975) literatur lanen historiaren ibilbidean badira datu bi oso ezagunak. Lehena *Euzko-Gogoa* aldizkarian argitaratu zituela bere lehen poemak. Bigarrena, bere gutunen ezagutza ez dela guztiz burutua. Hain zuzen ere, Karmelo Landak eta bere taldeak *Gabriel Arestiren Literatur Lanak* (1986) argitalpen behar-beharrezkoa plazaratu zutenean, garbi utzi zuten ez zituztela argitaratzen esku artean zituzten gutun guztiak:

Hogeita hamaika gutun hautatu txertatu ditugu liburu honetan, askoz ugariagoa da Arestiren korrespondentzia, eta eduki ere badugu gutun gehiago, baina haren korrespondentzia osoaren argitarapena etorkizunerako uztea iruditu zaigu neurririk zuhurrena (1986: 10, 238).

Erabaki horrek bidea eman digu, umiltasunez eta ez horrenbeste indarrez, Gabriel Arestiren lanen zertzeladak aurkitzen saiatu garenoi, handiko eta hemendiko berri gehiago emateko.

Euskaltzaindiko artxibategian eta Andima Ibinagabeitiaren ondarean badira Gabriel Arestiren gutun bi, hain zuzen ere *Euzko-Gogoa* aldizkariko Elantxobeko arduradunarekin trukatuak. Haietan Bilboko poetak bere asmoen berri eman du eta bere hasierako lanak nolakoak diren garbi azaldu du.

Gutunen balioa oso garrantzitsua da. Gutunak 1954koak dira, Gabriel Arestiren sorkuntza literarioaren hasiera-hasierakoak, prehistorikoak kasik. Balioa ongi neurtzeko kontuan hartu beharko genuke Karmelo Landaren edizioko lehen gutuna 1957koa dela, hiru urte geroagokoa.

1954an Arestik 21 urte ditu eta bere sorkuntzaren bidearen hasieran dago. Lehen gutuna Andimarena da. 1954ko azaroaren 16an bidalia. Arestiren erantzuna urte bereko abenduaren 27koa da. Ondoren Andimak erantzuten dio idazle bilbotarrari. Baina gutun hori ez da gorde, eta esku artean duguna Arestik berriz bidali diona da, hain zuzen ere 1955eko maiatzaren 22an. Hirurak Andima Ibinagabeitiaren artxibo-funtsean daude, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboan. Hau da bere kodea: ABA-AIB-001-016 (KEH-0141).

Artikulu honek helburu bi ditu. Lehenik gutunak emango ditu ezagutze-  
ra eta, ondoren, inguru historikoan jarri, eta Gabriel Arestiren lehen argitalpenen testuingurua zein izan zen azertu nahi du.

## Lehen urratsak

Gabriel Arestiren 1962ko *Mailu batekin: Biola batekin* liburu ezezaguna argitaratu genuenean 2016an, Gabriel Arestiren gutun argitaragabe bat plazaratu genuen (Kortazar & Kortazar, 2016). Bere xumean poetaren asmoen berri eman zigun. Gazteleraz dago eta justu dira zazpi-zortzi lerro:

Bilbao, 8/ VII/ 1954

Apreciables señores:

Habiéndome enterado de que han abierto ustedes un certamen literario vasco, me dirijo a ustedes con el fin de rogarles tengan la amabilidad de comunicarme las condiciones de tal concurso, pues tengo va-

rios trabajos hechos por mí en lengua vasca, y me gustaría saber si alguno de ellos entra dentro de la categoría de los exigidos por ustedes.

Espero que esta pequeña y modesta demanda mía no les sea engorrosa, y agradeciéndoles de antemano su amabilidad,

Les saluda atentamente,

Gabriel Aresti Segurola (2016: 126-127).

Azpimarratu beharko dugu 1954ko uztailleko data duela gutunak. Andima Ibinagabaitiarekin egindako gutuneriak garbian uzten du zein ziren «varios trabajos hechos en lengua vasca» horiek.

Uztailen, bada, Gabriel Arestik badu asmoa lehiaketa literario batera bidaltzeko bere lanak. Baina zeintzuk ziren horiek? Informazio bila ari den artean, Alfontso Irigoien bidez poema batzuk eta zenbait ipuin bidali ditu *Euzko-Gogo*a aldizkarira. Testu literarioak jasoaz batera, Andimak idazten dio Bilboko poetari:

Emen ditut zure idazlan bikaiñak, Irigoien adiskideak igorrita. Ez-titan irakurri ditut eta biotz dardaraz. Idazle polita zaitugu eta gure euskera errezi menderatu duzu, ez-oitua zure adiñekoen artean. Poemak batez ere, ederrak eta xotillak. Beti izan da nire ametsa euskera bide berriak barna eramatekoa; nik iritxi ez dudana, zuek gazteok iartxiko duzute noski. Ekiozu gogotik euskerari, eta or ikusiko duzu gure atso xahar hunek ez dizula ukhorik eginen gogoeta barne ta sakonenak ere argi distiratsuz iantzi ta aipatzeko.

Berritasunaren zantzuak ikusten dizkie poemei Guatemalan bizi den euskal idazleak. Eta argitaratzeko dituen asmoen berri eman ere:

Datorren banakoa, zure bi olerkiak argitaratuko ditut, urrengoan itz-lauzkoa.

Esaldiaren arabera, badirudi Andimak poemak hurrengo alean argitaratzeko asmoa zuela. Gutuna azarokoa da, eta aipaturiko ale horrek paradoxa badirudi ere, iraila-urriko data darama. Garbi dago berandu xamar argitaratzen zela, garaian ohikoa zenez, aldizkaria. Poema bi horiek, «Dance dans la prière» eta «Godalet-dantza» dira (1954, IX-X: 133). Hitz lauza ez zen aldizkarian argitaratu, baina esango nuke, eta lotura jada Karmelo Landak

ikusitu zuen (1986 6: 169-170), prosa lanok Arestiren *Literatur Lanak* bildumako *Narratiba* atalean argitaratu zituzten «Prélude a la Musique de la dance» eta «Haserre-dantza» direla (1986 6: 45-46), jakinda gainera Zaitegiaren ondarean agertu zirela, hain zuzen ere *Euzko-Gogo*a aldizkariko artxibategia ere baden ondarean. Eta ipuina toki bereberetan agertu zen «Urkatuaren oinetara» (1986 6: 47-50). Lehen testua garaian oso usu erabili ohi ziren poemen azalpen gisa («Godalet-dantza»k badu berea) ulertu behar genukeela uste dut, eta ez zuzenean kontakizun gisa. Bigarrenak, ordea, «Zuberotar maskarada»k delako «Suite» horretako beste adibidea ematen du. Bide batez, poema biok beste liburu orokor baten adibideak dirudite. Poemen azpian, azpitu gisa, honela dio Arestik: «From «Suite des dances Souletines et mixanes»», beraz, badirudi Arestik bazuela liburu bat gogoan frantseseko izen horrekin izendatua, eta ez zuela, dirudienez, borobildu.

1955eko I-II alean Gabriel Arestik «Maite-Gurpila» poema argitaratu zuen *Euzko-Gogo*an. Poema hau hiru sonetoz osatua da. Dena dela, argitaraturiko poemez gain, Euskaltzaindiko Zaitegi Gordailuan beste poema bat katalogatu zuen Karmelo Landak (1986, 10: 322) «Egin ezpahitu nire nahia».

Andimari erantzunez, Gabriel Arestik beste datu batzuk eman ditu bere sorkuntza prozesuaz. Eskerrak ematen dizkio poetak, eta bere poza azaldu:

Ezin gogora zenezake zein atseginez rezebi nuen zure gutuna. Laket haundia eman dit nire poesi apalak gaitzetsi eztituzula iakiteak. Badakit gauza asko balio ez tutela, eta horixegaitik nire eskerronik beroena emaiten dizut. Baina hoiak nire arimaren zati bat daramate, eta hala ez tirela osoz arbuigarriak pentsatzen dut. Baina batez ere emaiten dizut nire eskerrona hain gizabidetsu zarelako, nire euskal kemenari indar berri bat mailegatzeko, argitaratzen baitituzu zure errebista txukun-haundian nire olerkiak.

Baina ondoren beste lan batzuen berri eman digu:

Gutun honekin parean igorten dizkizut nik egindako berze poesi batzuk, ipuin bat, eta erderetarik euskarara bihurtutako olerki batzuk. Zure abegia kausi dezatela igurikiten dut.

Ez dago ziur jakiterik, baina esango genuke bigarren gutun honetakoa dela «Maite-Gurpila» poema. Horrekin batera igorritako itzulpenek prosa lanek baino patu hobea izan zuten, eta itzulpenok, beharbada Andimak euskararako nahi zuen «bide berriak barna eramateko» helburuarekin bat egiten zutelako ziurrenik, erraz aurkitu zuten tokia *Euzko-Gogoa* aldizkariaren orrietan.

Horrela argitaratu zituen bilbotarrak Guatemalako aldizkarian bost itzulpen, guztiak 1955eko urtean zehar. Shakespearen «CIX Sonetua» (1954ko azaroa-abendua, berriro atzerapenarekin), Baudelaireren «Gauontza» (1954ko azaroa-abendua), Verlaineren «Udazken kantua» (1954ko azaroa-abendua), Juan Ramon Jimenezen «Ezer ez» (1955eko urtarrila-otsaila), eta Goetheren «Ilhargiari» (1955eko maiatza-abendua). (Aresti 1986, 8: 7-11).

Asmo literarioaz gain, gutunak beste berri biografiko adierazgarri bat dakar. Arestik nola ikasi zuen euskara kontatzen dio Andimari, eta jakingarria da zinez datua:

Irakasle gabe ikasi baitut euskara beti egon izan naiz eremuan bezala, irakurten Bizkaiko Diputazinoko bibliotekaren euskal-liburuak, eta iakina, han zoritxarrez etzegoen gaur egunean egiten diren gauzen aierurik.

### **Bigarren gutuna: Asmo literarioak**

Abenduko gutunaren ostean isilik geratu da poeta bilbotarra eta beste datu autobiografiko interesgarria gehitu du gutunak, soldadutza egiten ari da, oso era erosoan, etxetik hurbil eta ordutegi ezin hobearekin:

Baina hontan ezta nire errua izan, pozik izkribatu ukanen nizuke gutun bat, baina badira bi hilabete, eta Patriak deitu nau eta hone-lako deikerei uka-biderik ezpaitago, ihoan behar. Ordudanik kanpamenduan egon naiz, Orduñan, eta Irazusta zenak zergaitik dinoen bizia garratza dela ulertu dut. Orain zorionez, larrialdia iragan da, eta Bilboratu naiz, destinu bat, idazlariz, hemengo gobernu militararen (sic) eman baitidate, goizaldeetan berzerik eztu ihoan behar, libro ditudala arratsaldeak.

Anjel Zelaietak egindako *Gabriel Aresti. Biografia* lanean zerbait gehitu da Arestiren soldadutza aroaz:

Soldaduska egiterakoan Gabriel Arestik ez zuen zorterik gaiztoena izan. Kanpamendua egin ondoren, gainetiko guztia Bilbon egin zuen. Gobernu Militarrean, Jose Ignacio Gorostiza arkitektoaren bitartekotasunari esker (2000: 23).

Zalantzarik ez, badira autobiografia zehazteko datu garrantzitsuak gutun honetan, hala nola kartzelara doazenak gaitzestea, euskararen lana goraiapatuz:

Bilbon izuzko uhin bat hedatzen da, eta asko dira gartzelara ihoan direnak. Eztute ikasiko euskaldunak bide bat baino eztagoela, eta hori gure hizkuntzaren lantzea dela.

Edo Jon Etxaideren eta Santiago Onaindiaren egoeren berri emanez:

Eztakit zer gertatzen den Etxaide Ionekin, baina dirudienez truka-aieru bat perfilatzen da adiskide hontan. Euskeraren onerako gauza bat egin ahal dezakezu, Ioni kemena ematea.

Eta, *Milla euskal olerki eder* liburuaz arituz, hauxe idazten dio Elantxobeko idazleari:

Eztakit badakizun Aita Onaindian liburuaren gelditzen ziren iheki guztiak arrapatu dituela estatuak.

Gainera Bilbon bere ustez euskararen kalterako burgesiak duen ohitura baten berri eman dio Guatemalako idazleari. Dirudienez, garai hartan famulietan bazegoen ohitura zerbitzariak euskaldunak hartzekoa, euskara egiteko seme-alabekin. Arestiren ustez, euskara «aberatsen luxua» bihurtu delako, herri xehearen arbuioa sortuz.

Baina, iritzi soziolinguistiko eta egoera pertsonalen aldetik, gutuna oso esanguratsua da bere asmo poetikoen berri ematen duelako.

Dirudienez, Gabriel Arestik badu liburu bat egiteko asmoa. Alde bi izango ditu liburu horrek: *Sonetoak* lehenik, eta ondoren, *Rhapsodiak*. Lehen moldea ezaguna da, bigarrena aldiz:

Nik asmatutako poesiako suerte berri bat, Rhapsodiak izendatzen dudana.

Ez dut aurkitu «Rhapsodiak» delako horien berririk beste inon, eta pentsatzeko bide da, betiere behar diren prudentzia puntu guztiak hartuz, ez ote diren *Euzko-Gogoan* agerturiko poema horiek *Rhapsodiak* proiektu horren parte. Alde batetik, poema horiek badira «nik asmatutako poema suerte berri bat», baina era berean, jada bidaliak zituen, ezer aipatu gabe.

*Sonetoak* proiektuaren ibilbidea ezagunagoa da. *Egan* aldizkarian argitaratuko ditu, lehenak 1956ko maiatza-abuztuko alean. Pentsatzekoa da «Amalaudun bi» horiek (berez eta errakuntzez «Amolandun bi») Andimari azalduko asmo horretakoak izatea. Eta *Eganekiko* izan zuen atxikimenduaren froga izango zen 1958an plazaratu zuen «XXXI» sonetoa. Andimari azalduko proiektuaren barneko bazen hori, ez da dudarik liburu nahiko osatua zuela Arestik. Eta data berantiarak, 1958ko horrek, soilik adieraziko luke aldizkariak zuen arazoa.

Kontuan hartu behar litzateke, gainera, *Karmel* aldizkarian agerturiko «Nire gorpuzta» poema sonetoa dela, eta hori 1958koa da (Aresti 1986, 1: 22).

Gabriel Arestiren gutun horretan bada beste datu garrantzitsu bat, hain zuzen ere, Garrigarekin duen harremana. Honela dio esaldiak:

Argentinako Garrigak dinoenez, bada bidali neutsozan lauzpasei sonetu, ausartatxoak (berak errana) zeritzoenak. Tamala da euskaltzaleek oraindino ez ulertzea gauza bat dela elertia eta bertze bat diferente moralitatea eta erleginoa. Haugatik eztut erran gura atheo edo erleginobakoa naizela.

Ez dut ongi ezagutzen zein izan zen Garrigaren papera euskal literatura-remuan gerraostean. Dakidan datu bakarra, eta ez da nolana hiko, zera da: Txema Larreak Garrigaren ondarean aurkitu zuela Miranderen poemen liburuaren egitura osatua (Mirande 1984). Ulertzen dudanez, Garrigak mezenazgo mota bat egin zuen Argentinan euskal idazleen artean. Mirandek, ez da zalantzarik, bere lana bidali zion, liburu ongi egituraturik hark argitaratu zezan, edo behintzat argitalpen gastuak estali zitzan. Arestik bere sonetoak ere bidali zizkion. Egia da lau-bost soneto ez direla nahiko liburu bat eratzeke. Baina zein soneto ziren horiek? «Maite gurgipila»k hiru biltzen zituen, eta 1955ean argitaratu zen poemak, «Amalaudun bi» deiturikoak, bi biltzen zituen, eta argitalpena 1956koa da.

1982an Juan San Martinek «Gabriel Aresti: beren poesien antolojia laburra» ematen duenean argitara beste datu berri bat argitu zigun. *Eganeko* «XXXI» Sonettoa, *Sagar Zimelak* deitu zuen bilduma bateko «Hirugarren sonettoa» omen zen (1982: 20). Karmelo Landak datua bere lanean hartu bazuen ere (1986, 1: 322), horri buruzko daturik ez dut inon aurkitu. Horren arabera, bazuen Arestik liburuaren izenburua behintzat. Horrek ez du adierazi nahi liburua osatua zuenik, zeren beste batzuetan ere izenburua bazuen baina liburua ez, edo izenburuek testu desberdinak hartzen zituzten barnean. Adibidez, «Euskal Komedia» izenburupean testu desberdinak ondu zituen Arestik.

### Bete gabeko beste asmo batzuk

Rhapsodiaz *Suite de dances souletines et mixenes* liburuakoak izan ala ez) eta Sonetoz (*Sagar zimelak* deitu bilduma edo ez) liburuak osatzeko asmo galdua ez da bakarra poetaren historian. Gabriel Arestik azaldu eta bete ez zituen proiektuak ugariak dira. Batzuk esan, esan zituen, eta bete ez; beste batzuk, agian esan, bete eta galdu egin dira.

Karmelo Landak bilduriko gutunerian bada zenbait libururen berri. Haie-taz oso gutxi dakigu, edo ia ezer ez. Batzuk sorkuntzazkoak dira, beste batzuk ordea, itzulpenekoak.

- 1) 1959. Lehena *Maldan Beheraren* bigarren atala litzateke: *Mirenen koplategia* deitzen duena (Aresti 1986, 10: 140, Andoni Kaierori gutuna eta 141 Norbert Tauerri).
- 2) 1959. «Euskara garbia». Euskarari eskainitako poema luze bat (Tauerri gutuna 1986, 10: 141).
- 3) 1960. Nobela berria. *Kibernia eta Jesus*. (Tauerri gutuna 1986: 10: 142).
- 4) 1960 (?): *Legearen oinarria. Mila puntuko poema berria*. Andoni Kaierori gutuna. Anton Arregiren musikaz osatua izateko. «Intxina» poema Anton Arregiren musikaz osatu omen zen, beraz agian, poema asmo horren urratsa litzateke. «Tercetos en cadena» metrika erabilia. Horrelaxe idatzi zuen *200 puntu* deituriko testua (1986, 1: 165-175).

5) Gainera Juan San Martinek gorago aipaturiko «Antolojia laburrean» dio Arestik:

Literatur absurdua munduan modan jarri zen garaian, era hartaz ere zenbait saio egin zituen. Beretarik kopia bat bidali zidan, nire eritzia eskatuz. Euskal giroan garai hartan etsai asko zituen, eta bere pertsonaren onerako, ez argitaraztea gomendatu nion. Ez dakit orijinal haiek zer burubide eramango zuten, baina nik kopia bat badut eta uste dut zor zaiola Aresti zenari horiek ere argitara ematea, bere literatur ibilera hobeto ezagutzeko. Beraz *Egan*-en hurrengo zenbakian, uste dut aukera hori izango dugula (1982: 17).

Absurdo literaturatik hurbil dira *Ezkutu eta Dukat banatan saltzeko bertsoak* baina ez dakigu Juan San Martinek zituenak eta beste horiek berak diren. Beste aldetik, Gipuzkoako Artxibategiko San Martin funtsean egin dako nire ikerketetan ez da agertu *Egan*-en agertuko omen zituen bertso horien kopia. Han karpeta bat badago eta azalean «Antolojia laburra» jarzen du, baina barnean diren materialak zerikusi gutxi dute antologiarekin. Seguruenik karpeta hartan gorde zituen San Martinek poemak inprentara eraman aurretik. Lana inprentara eraman ostean han geratu eta galduko ziren, agian.

Beste horrenbeste gertatzen da itzulpenak direla eta. Hasiera batean eta entusiasmoak jota Arestik plazaratzen du, edo adiskide bati esaten edo idazten dio, halako idazlearen obra osoa agertuko duela, eta gero askoz ere gutxiago argitaratzen du, eta Aresti zuen guztia argitaratzearen aldeko zen.

- 1) 1961. Norbert Tauerra idazten dio esanaz «Blas de Oteroren olerki guztiak euskeratzen hari naiz» (1986, 10: 153). Poesia guztiak itzultzeko asmo horretatik *Egan*en argitaratuak geratzen zaizkigu. 1961ean «Erderazko lau poeta» deituriko antologia laburrean Blas de Oteroren 10 poema argitaratu zituen. Eta 1962an «Majoria haundiarekin» deituriko bilduman 19 poema.
- 2) Datarik gabe. Gregorio San Juanek Aresti hil eta 15 urte igaro ondoren *Zurgai* aldizkarian plazaratu zuen artikulua batean aitortu zuen Arestik bazuela asmoa Curros Enríquez Galiziako poetaren lan osoa euskaratzeko:

Tanto entusiasmo despertó en él, que hizo el propósito de traducir al vascuence todo ello. Recuerdo que algunos años más tardes me enseñó el primer canto del *Sainete*. Lo demás no sé si lo llevó a cabo (1990).

Gregorio San Juanek aipatzen duen «hori guzti hori» Curros Enríquezen obra da: *Aires da miña terra, Mirando o chao, O divino Sainete, Cartas del Norte*. Eta guztietatik egin zuena *Jostirudi Jainkotiarraren sarreraren* eta lehen kantuen itzulpena izan zen, hain zuzen ere Gregorio San Juanek gogoratzen zuen hura, Arestiren etxean aurkitu zutelarik lan argitaragabea (1986 8: 90-98).

## Ondorioak

Andima Ibinagabeitiarekin Gabriel Arestik izandako gutun trukaketa horrek balio izan digu poetaren bizitzaren datu berriak jasotzeko eta bere hasiera-hasierako lanaren berri emateko.

Ez da zalantzarik proiektuz beteriko poeta izan zela Gabriel Aresti. Bartzuk bete zituen, beste asko bete gabe utzi. Gutun hauetan idazle izaten hasi zeneko zenbait idazlanen berri eman du, eta beraz hasiera hasierako idazlearen asmo eta arrangurak agerian geratu dira gutun biotan. Ez da zalantzarik Gabriel Aresti idazlearen lehen pausuak ezagutzeko datu bereziak ematen dituztela gutunok. Azken batean, gutunetan aipaturiko poemak eta testuak dira poeta bilbotarrak plazaratu zituen lehen poemak.

## Bibliografia

ARESTI, G (1964): «Mailu batekin». *Egan*. 51-67.

ARESTI, G. (1982): «Bere poesien antologia laburra». *Egan*. 1982. 20-57.

ARESTI, G. (1986, 1): *Gabriel Arestiren Literatur Lanak. Lehen poesiak*. Karmelo Landaren edizioa. Zarautz: Susa.

ARESTI, G. (1986, 6): *Gabriel Arestiren Literatur Lanak. Narratiba*. Karmelo Landaren edizioa. Zarautz: Susa.

ARESTI, G. (1986, 8): *Gabriel Arestiren Literatur Lanak. Itzulpenak (I)*. Karmelo Landaren edizioa. Zarautz: Susa.

ARESTI, G. (1986, 10): *Gabriel Arestiren Literatur Lanak. Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*. Karmelo Landaren edizioa. Zarautz: Susa.

ARESTI, G. (2016): *Mailu batekin: Biola batekin*. Jon Kortazarren eta Paulo Kortazarren edizioa. Bilboko Udala: Bilbo.

AZURMENDI, J. (1985): «Gabriel Aresti, sentsibilitate konkretu bat». *Jakin*, 36: 5-30.

KORTAZAR, J. (2010): «El poeta Gabriel Aresti». *Cuadernos de Alzate*. 43. 68-101.

KORTAZAR, J. (2015): «Las relaciones literarias entre Blas de Otero y Gabriel Aresti ». *Ancia*. 8. 6-11. <http://www.fundacionblasdeotero.org/images/documentos/ancia/Ancia-8.pdf>

KORTAZAR, J. (2015): «Gabriel Arestiren poesia eta Gerra Zibila. *Euskal tragedia*». FERNÁNDEZ, Beatriz eta SALABURU, Pello (arg): *Ibon Sarasolari Gorazarre. Homenatge. Homenaje*. EHUko Argitalpen Zerbitzua: Leioa. 403-417.

KORTAZAR, J. eta KORTAZAR, P. (2016): «Sarrera» in ARESTI, Gabriel (2016): *Mailu batekin: Biola batekin*. Jon Kortazarren eta Paulo Kortazarren edizioa. Bilboko Udala: Bilbo. 25-48.

KORTAZAR, J.: (argitaratzekoa): Gabriel Aresti, del símbolo a la conciencia social. Renoko Unibertsitatea.

KORTAZAR, J. (argitaratzekoa): La guerra civil en la poesía de Gabriel Aresti (1933-1975). *Euskal Tragedia/ Tragedia Vasca*. Santiago de Compostelako Unibertsitatea.

LANDA, K. (2013): «Gabriel Aresti: Nazionalismoa eta Sozialismoa Bilbon eta Euskal Herrian» in ELKAR LANEAN: *Bilbon, 2012ko irailaren 14an egindako Nazionalismoa ikertuz: nazionalismoa, demokrazia eta kultura I. Kongresuaren akta-liburua. Minutes Book of Research on Nationalism 1st Conference: nationalism, democracy and culture*. Bilbao, September 14th, 2012. EHU. 113-122.

MIRANDE, K. (1984): *Poemak. 1950-1966*. Txema Larrearen edizioa. Erein: Donostia.

SAN JUAN, G. (1990): «Gabriel Aresti, treinta y cinco años atrás: Una conciencia firme entre Manuel Curros Enríquez y Tomás Meabe». *Zurgai*. 6. <http://www.zurgai.com/archivos/201304/PoetasVascos-020.pdf?1>. [Kontsulta: 2017ko martxoan].

SAN MARTÍN, J. (1968): *Escritores euskéricos*. La Gran Enciclopedia Vasca. Zalla.

SAN MARTÍN, J. (1982): «Gabriel Aresti: Bere poesien antolojia laburra». *Egan*. 1982. 13-57.

SARASOLA, I. (1976): «Hitzaurrea/ Prólogo» in Aresti, Gabriel: *Obra Guztiak. Poemak I*. Jon Juaristi (arg.). Kriselu. Donostia. 10-99.

SARASOLA, I. (2016): «Gabriel Arestiren 'Harri eta Herri'-tik desagerturiko bi poema». *Berria*. 23/02/2016.

ZELAIETA, A. (2000): *Gabriel Aresti. Biografia*. Susa. Zarautz.

ZULAIKA, K. (2014): *Vieja luna de Bilbao*. Nerea. Madril.

## Eranskinak: gutunak

Guatemalan, Azaroak 16-54

Arestitar Gabirel I'ri

*Bilbaon*

Adiskide berri:

Emen ditut zure idazlan bikaiñak, Irigoien adiskideak igorrita. Eztitan irakurri ditut eta biotz dardaraz. Idazle polita zaitugu eta gure euskera errezki menderatu duzu, ez-oitua zure adiñekoen artean. Poemak batez ere, ederrak eta xotillak. Beti izan da nire ametsa euskera bide berriak barna eramatekoa; nik iritxi ez dudana, zuek gazteok iaritxiko duzute noski. Ekiozu gogotik euskerari, eta or ikusiko duzu gure atso xahar hunek ez dizula ukhorik eginen gogoeta barne ta sakonenak ere argi distiratsuz iantzi ta aipatzeko. Zuri beintzat, lantxo auetatik ageri denez, bere altxorrek eskuka eskeiñi ditizu dagoneko. Iarrait taigabe, euskal arloa lantzen. Ezaldiek ere noiztan-ka, bear baiño usuago, biotz-atetan izanen dituzu, ez ordea etsi. Guk behar dugu gurea gurea dugun ondadsun zaitu, arthatu, apaindu aberastu ta bizkortu. Gazteentzako, bertzalde, eztago eginkaitzik, eta gazteen biotz beroetan ain zuzen, euskerak begi biak ezarrita dauzka.

Datorren banakoa, zure bi olerkiak argitaratuko ditut, urrengoan itz-lauzkoa. Euskadi ta Euskalerriren artean bereizketa egiten duzu; enetzako biak

berdin ditezke eta dira, euskaldun liraken neurrian. Itzak uts gertatzen dira gogoz ta arimaz betetzen ez dituguño; aipatu itzak ere euskeraren ispirituz ta gorputzez an[i]patu behar ditugu. Euskera gabe, ez dut nahi ez Euskadirik ezta Euskalerririk ere. Biak litezke ein berean erdeñagarri. Barka, otoi, ene ateral-ditxo au; gaitzez ez da izan, onez baizik. Eta iarraitu egoitik ere, zure lan ederrak bialtzen. Txerarik amultsuena ukanen dute gure baitan. Eta Iankoak kemen diezazuela Bizkaiko gazte oi, euskera amets dugun gaindegietara iasotzeko.

Ar ezatu adiskide zahar hunen zorion agurrik eta goraintzi minenak. Euskera bedi beti gure goiburu.

\* \* \*

Bilbon, 1954-XII-27gnean.

Ibinagabeitiar Andima iaunari

Guatemalan

Nire iaun olesgarri eta ohoratua:

Ezin gogora zenezake zein atseginez rezebi nuen zure gutuna. Laket haundia eman dit nire poesi apalak gaitzetsi eztituzula iakiteak. Badakit gauza asko balio ez tutelera, eta horixegaitik nire eskerronik beroena emaiten dizut. Baina hoiek nire arimaren zati bat daramate, eta hala eztirela osoz arbuia-garriak pentsatzen dut. Baina batez ere emaiten dizut nire eskerrona hain gizabidetsu zarelako, nire euskal kemenari indar berri bat mailegatzeko, argitaratzen baitituzu zure errebista txukun-haundian nire olerkiak.

Euskal-Akademitik burua agertu arte ez nuen zure aldizkariaren ezein berri, zeren irakasle gabe ikasi baitut euskara beti egon izan naiz eremuan bezala, irakurten Bizkaiko Diputazinoko bibliotekaren euskal-liburuak, eta iakina, han zoritxarrez etzegoen gaur egunean egiten diren gauzen aierurik. Orain Iankoari eskerrak, adiskide euskaldun asko dut eta liburuetarik kanpora ilki naiz.

Iar ezau nire izena arpidedunen zerrendan, eta bidal ietzadazu gaurdanik atera diren Eusko Gogoa guztiak: nire zuzenbidea badakizu eta han hartuko ditut pozik. Gutun honekin parean igorten dizkizut nik egindako berze poe-

si batzuk, ipuin bat, eta erderetarik euskarara bihurtutako olerki batzuk. Zure abegia kausi dezatela igurikiten dut.

Eta berzerik gabe egiten dizut agur egungo, gutiziatzen dizkizudala Gauon-iai zoriontsu batzuk, nire goraintzirik segurenak eskeinten

Aresti S. Gabriel

\* \* \*

Bilbon 1955/V/22gnean.  
Ibinagabeitia'r Andima iaunari  
Guatemalara

Nire iaun agurgarri hori:

Tamalez eta damuz betatzen (sic) zait bihotza hain denbora luze bat zuri idatz gabe egon naizelako. Baina hontan ezta nire errua izan, pozik izkribatu ukanen nizuke gutun bat, baina badira bi hilabete, eta Patriak deitu nau eta honelako deikerei uka-biderik ezpaitago, ihoan behar. Ordudanik kanpamenduan egon naiz, Orduñan, eta Irazusta zenak zergaitik dinoen bizia garratza dela ulertu dut. Orain zorionez, larrialdia iragan da, eta Bilboratu naiz, destinu bat, idazlariz, hemengo gobernu militarean (sic) eman baitidate, goizaldeetan berzerik eztut ihoan behar, libro ditudala arratsaldeak.

Orain Bilbon izuzko uhin bat hedatzen da, eta asko dira gartzelara ihoan direnak. Eztute ikasiko euskaldunak bide bat baino eztagoela, eta hori gure hizkuntzaren lantzea dela.

Eztakit zer gertatzen den Etxaide Ionekin, baina dirudienez truka-aieru bat perfilatzen da adiskide hontan. Euskeraren onerako gauza bat egin ahal dezakezu, Ioni kemena ematea, edo hasitako bidetik eztadin irten egin-ahala egitea. Hemengoak apaldurixek, beldurrez beterik, batez ere ni, nagoen lekua dela-ta.

Orain izkribatzeko oporra badadukat, eta liburu bat argitaratzeko asmoan nago, nihor orain arte abiatu ezten bide baten, sonetuak. Estatuaren baime-na lortzen badut, eta gero egiteko dirua iaersten badut, berze behaztopa harririk ezpadut kausitzen, argitaratukoitut nire sonetuak, eta batera nik

asmatutako poesiako suerte berri bat, Rhapsodiak izendatzen dudana. Idazten dudana ezta osorik orthodoxo, Argentinako Garrigak dinoenez, bada bidali neutsozan lauzpasei sonetu, ausartatxoak (berak errana) zeritzoenak. Tamala da euskaltzaleek oraindino ez ulertzea gauza bat dela elertia eta bertze bat diferente moralitatea eta erleginoa. Haugatik eztut erran gura atheo edo erleginobakoa naizela, baina pintore baten moralitatea ezta bere desnudoen biluizitasunaren araura neurtua. Ulertzen banauzu eskertuko dizut nire alde parte hartzea, zeren behatu dudanetik euskaldunen gogo hertsia eta meharra da. Hontan finkatu izan da, ustet, gure kalte guztien sustraia. Egia, Khristo, Bethlehem iaio dela, eta arrosak udaberrian ederrak daudela errateko gurago dut isildu eta mututu.

Eztakit badakizun Aita Onaindian liburuaren gelditzen ziren iheki guztiak arrapatu dituela estatuak: ausarkundeak beti iaresten du bere zigorra. Azkenik orain hemen egiten den penomenu bat azaldu nahi dizut, Bizkaian euskararen atzerakuntza motivatu zuenaren itzulikoa. Haundikiak euskaraz egiten iakin ala ez, bere kumeak dagitela nahi dute, eta hola dituzte neska-me-morroiak euskaldun izan behar dute, eta kumeei, inudeek, batez ere, eztiere erdaraz egin behar. Bilboko Parkean eta Granvian ere gauza egun orokoa da, inudeek eta lagun egiteko andreek ere, haundikien seme-alabekin, euskaraz baizik egiten eztiendela ikustea. Neu ere hemengo business baten diru-biltzailea nintzela, etxe askotan topatu dut ene burua erdaldun etziren kumeekin, gurasoak euskaldun izateke. Haugatik erran komuna da gaurko egunean Bizkaiko hiriburuan euskara aberatsen luxu bat dela.

Berze gabe, zure menpekorik apalena gelditzen naiz.

A.S.G.